

Miren Azkarate, Kultura sailburua

Euskara, hizkuntza bat gehiago Informazioaren Gizartean

(Agurra mahaian dauden guztiei banan-banan eta bertaratutakoei)

Rosa García, Microsofteko presidentea

Juan Pedro Isasa, Microsoft Ibérica-ko Sektore Publikoko kudeatzailea

DELL : **Arturo Parrilla**, Sektore Publikoko Salmenta zuzendaria

HP: **Koldo Ruiz**, Ipar Eremuko zuzendaria

INVESTRÓNICA : **José Antonio Landrove**, Eragiketa Saileko zuzendaria

Begoña Gutierrez Informatika eta Telekomunikazio zuzendaria

Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Hasteko, esker ona adierazi nahi diot Eusko Jaurlaritzaren izenean Microsoft enpresari, hizkuntza aniztasuna kontuan hartuz jokatu duelako eta euskararekiko benetako sentiberatasuna eta konpromisoa erakutsi dituelako.

Ez dira asko hizkuntza aniztasunarekiko jarrera hain irekia eta positiboa erakusten duten enpresa multinazional handiak. Eskerrik asko, beraz, Microsofti, “think global, act local” ezaguna, hitzetan ez ezik, ekintzetan ere erakusteagatik.

Mundu mailako marka global bat da Microsoft, eta aintzat hartu du euskara. Horrek mesedegarria baino ezin du izan gure hizkuntzarentzat. Globalizazioa erronka garrantzitsua da hizkuntza gutxituentzat, baina mundu globalizatua eta hizkuntza gutxituak ez daude kontrajarriak. Horren froga argia da gaur hemen aurkezten ari garena.

Euskaldunok gure hizkuntzan bizi nahi dugu, eta aldi berean, zabalik gaude mundu globalizatura eta teknologia berrietara. Bateragarria da hori guztiz. Ameriketan, Txinan edo beste edonon gaur erabiltzen duten teknologia berbera erabiltzen dugu, baina euskaraz; ingelesez, alemanez edo beste edozein hizkuntzatan dauden edukiak kontsultatu ditzakegu sarean, ordenagailua euskaraz erabilia...

Guztiz ezkongarriak dira euskara eta teknologia berriak, euskaldunak eta mundu globalizatua. Hori hala izan dadin, ordea, behar-beharrezkoa dugu teknologia berrien esparruan gure hizkuntzarekin atsedetik hartu gabe urratsak ematen jarraitzea.

Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusietako bat, –Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ondo zehazten duenez–, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzea da, herritar guztiei beren hizkuntza eskubideak bermatzea. Horretarako, ahalegin handiak ari da egiten Eusko Jaurlaritza esparru guztietan orokorrean, eta teknologia berrien esparruan bereziki.

Gero eta herritar gehiago dira teknologia berriak erabiltzen dituztenak, eta esparru horretan ere presente eta bizirik egon behar du euskarak. Izan ere, IKTen

esparruan presentziarik eduki gabe, nekez izango da euskara gaur egungo mundurako komunikaziorako tresna baliagarria eta baloratua.

Zorionez, produktu teknologiko ugari ditugu dagoeneko euskaraz eskuragarri: sistema eragileak, ofimatika-paketeak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaile ortografikoa, plugin-ak, corpusak, Terminologia Banku Publikoa, datu-base lexikalak eta abar. Horrek argi erakusten du, batetik, teknologia berrien esparruan ere euskaraz moldatu nahi dutela euskaldun askok; eta bestetik, herritarren eskaera horri erantzuna ematen ari zaiola Eusko Jaurlaritzak. Izan ere, merkatuak etengabe eskaintzen ditu produktu teknologikoak eta bezeroek dauden hizkuntzan kontsumitzen dituzte. Hori dela eta, oso garrantzitsua da guretzat ziurtatzea euskaraz ere eskuragarri daudela, ondoren erabiltzaileak erabaki dezan zein hizkuntzatan erabili nahi duen.

Euskaraz ditugun tresna horiek guztiek erakusten dute baita ere gero eta enpresa gehiago direla teknologia berrien esparruan, eta beste sektore askotan, euskara aintzat hartzen hasi direnak. Microsoftek Eusko Jaurlaritzarengana jo izana beren produktuak euskaraz ere eman nahi dituelako, albiste ona da euskararentzat eta euskaldunontzat; euskara garrantzia eta prestigioa irabazten ari dela erakusten duelako, eta euskarak historia luzea bai, baina batez ere orainaldia eta etorkizuna dituela begi-bistan uzten duelako.

Hizkuntzen Nazioarteko Urtea da 2008. urte hau, eta hizkuntza guztien balioa azpimarratu eta nabarmentzeko baliatu behar genuke izendapen hori, hizkuntza gutxituetako hiztunek bereziki. Hain zuzen ere, Hizkuntzen Nazioarteko Urte honetan Euskara beste hizkuntzen artean kokatu nahi dugu. Euskara sendo nahi dugu, bizi-bizirik, eta horregatik gure ardura da gure kultur aberastasuna indartu eta zabaltzea, horretarako beharrezkoak diren tresna eraginkorrenak erabilita.

Etxepare idazleak *“euskara jalgi hadi mundura”* idatzi zuen; Koldo Mitxelena hizkuntzalari handiak honako hauxe esan zuen: *“Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia”*.

Lehendakariak behin baino gehiagotan aipatu izan du euskarak munduko plazan bere tokia behar duela. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei esker, muga geografikoak eta denborazkoak desagertzen dira eta hori aukera paregabea da gure hizkuntzak mundu globalaren espazio birtualean bere tokia izan dezan.

Aukera hori, zalantzarik gabe baliatu behar dugu.